

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Zerga Ogasuna “osasan-zentimoa” itzultzen hasiko da azaroan

Prozesua 2015ean osatzea aurreikusten da, aurkeztutako 20.000 erreklamazio baino gehiago izapidetu eta berrikusteko aukera izan ondoren

Viernes, 10 de octubre de 2014

Nafarroako Zerga Ogasuna azaroan Hidrokarburo Zehatzen Txikizkako Salmentei buruzko baliogabetutako Zergari dagozkion zenbatekoak itzultzen hasiko da, "osasan-zentimoa" izenarekin ezagutzen dena.

Itzulketak egiten hasiko da zergaren aplikazio-aldian asebetetako kuoten itzulketa erreklamatu duten zergadunen artean, eta espedientea behar bezala berrikusi zaiena. Prozesua 2015. urtean zehar osatu ahalko dela aurreikusten da.

Orain arte, Nafarroako Zerga Ogasunak itzultzeko 14.393 eskaera telematiko jaso ditu, eta horrek sisteman kontsumoko 700.000 datu inguru sartzea ekarri du. Itzulketa gauzatu ahal izateko, teknikariek espediente bakoitza berrikusten dute emandako kontsumo-datuetan izan daitezkeen bikoiztasunak edo justifikazio-hutsegiteak detektatzeko

Espediente horiei zergadunek paperean emandako 6.000 inguru gehitu behar zaizkie, sisteman erregistratzeko zain daudenak. Itzulketen izapidea konplikatu eta mantsotzen duen prozesua da. Erreklamazioaren izapidea arindu eta haren berrikuspena errazteko, Ogasunak gogoratu du zergadunen esku [aurkezteko formulazio telematiko](#) bat eta [laguntza-gida](#) bat daudela.

Estatu-mailan egindako hasierako kalkuluen arabera, itzulketekiko Nafarroari dagokion zatia 38 bat milioikoa da. Nolanahi ere, aurkeztutako eskaeren azterketatik eta 2003/96/CE Zuzentarauaren aplikazioaren azterketetatik, aurreikuspena 20 milioi inguruko kopuru batera jaitsi da, nahiz eta behin betiko zifra prozesua amaitu arte jakingo ez den. Aipatzen den Zuzentarauak gutxieneko zerga-ordainketa bat ezartzen du eta EBeko araudiak preskribatutako zerga berezien gutxieneko maila gaindituko duten kopuruak itzultzen uzten du soilik.

"Osasan-zentimo"-aren historikoa Nafarroan

Foru Komunitatean, Espainiako gainerako lekuetan bezala, "osasan-zentimoa" 20012ko urtarrilaren 1ean indarrean sartu zen ([24/2001 neurri fiskalen lege](#)aren bidez onartu zen eta ondoren Itun Ekonomikoarekin adostu). 10 urte baino gehiagotan, Nafarroan IVMDHren "tarte orokorra" baino ez da aplikatu eta ez tarte autonomikoa.

2012ko maiatzaren 11n, [Nafarroako Gobernuak onartu](#) zuen

IVMDHren "zati autonomikoa" ere sartzea, defizit-helburua betetzeko neurrietako bat izanik. 2012ko uztailaren 1ean indarrean sartutako [10/2012 Foru Legea, ekainaren 15ekoa](#), onartu zen. Nafarroan ezarritako tarte autonomikoa une horretan legeak uzten zuen gehienekoaren erdia zen. Zehazki, 0,024 euroekin kargatzen zuen gasolina-litro, erabilera orokorreko gasolio eta kerosenoaren bakoitza. Erabilera berezietako gasolioaren eta berokuntza-gasolioaren kasuan 0,006 litro izan zen finkatutako karga, fuel-olioarena, berriz, 1 eurokoa tona bakoitzeko. Salgaien eta pertsonen taxilari nahiz garraiolarien kasuan, erabilera bereziko gasolioa zerga horretatik kanpo geratu zen beren jarduerari ez eragiteko.

Abenduaren 26ko [21/2012 Foru Lege](#)aren bidez, zenbait zerga eta beste zerga-neurri batzuk aldatzen dituen, IVMDH Hidrokarburoen Zergan sartzea onartu zen. EBeko Justizia Auzitegiak emandako epaia lege hori 2013ko urtarrilaren 1ean indarrean sartzan denetik bildutako kuotei ez zaie aplikatzen.

Abenduaren 28ko [38/2013 Foru Lege](#)aren bidez, zenbait zerga eta beste zerga-neurri batzuk aldatzen dituena, eta 2014ko urtarrilaren 1ean indarrean sartu zena, Hidrokarburoen Zergaren karga autonomia kendu zen.

2014ko otsailaren 27an, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak Europako araudiaren aurkako Hidrokarburo Zehatzen Salmentari buruzko Zerga aitortu zuen, eta horrek protokolo bat ezartzeko beharra ekarri zuen zergadunek aurkeztutako kuotak itzultzeko.